

## IRITZIA

Miren Vallejo

## ERREPORTAIA

35 orduko  
lanastea langile,  
enpresari eta  
sindikatu  
en ikuspuntutik

## GEHIGARRIA

kiliBARREN

## BERBETAN

Jose Luis Lorenzo,  
salsa irakaslea

## KIROL

## ELKARRIZKETA

Kike Ormaetxea,  
Haundiko  
entrenatzailea


## KULTURA

Pedro Migel  
Urruzuno idazlearen  
omenezko  
Aste Literarioa

# BARRE

300. zenbakia  
VI. urtea - 234. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



## MAIATZAK

# 1

## 35 orduko lanastearen aldeko garrasia

ribi (71

"Berrikuntza txikietarako prest ez dagoena, sekula ez da egongo berrikuntza handietarako prest" M. Gandhi



**Inor ez lanik gabe**

**LAB**

**eguerditto 11:30ean, La Casillan**



**nonostian, eguerdiko 11:30ean, Mdertrt Etterren**



**Enplegua eta elkartasuna 35 orduen alde**



MIREN VALLEJO

## Bizitza, eskolarik onena

**B**ARRENeK zeozer kontatzeko aukera eman didanez, horixe egiteko asmotan natorkizue oraingoan. Gauza handirik esateko ez daukat nik, bizitzan egindakoak, ikasitakoak eta ikusitakoak ez badira behintzat.

Eskolarik ez genuen eduki guk: gure eskola bakan'a bizitza izan da eta. Euskara, dantza, kantua,... horixe egiten genuen guk gazte denboretan. Goiko Plazan jarri, txistek esan, eta barre egin, horixe egiten genuen. Eta ez pentsa oraingo gazteriak inbidiarik ematen didanik. Sekula aspertu ez, hutsarekin konfonnatzen ginen eta. Orduko jokoak "tabak" eta "txirrin bat eta txirrin bi" deitzen geniona izaten ziren. Lau lagun jartzen ginen Plaza Handiko arbolan ostein eta bat erdian. "Txin'in bat eta txirrin bi" kantatu eta arbolatik arbolara ihiltzen ginen. "Hiru txirrin eta lau txirrin", erdian zegoena libre geratu eta arbola hartzen saiatzen zen. Arbolarik gabe gelditzen zenak galitzen zuen.

Oraingo jokoak egon ere, ez ziren egongo, eta erosteko dirurik ere ez! Txakur handi batekin egiten genuen egin beharrekoak. Gogoan daukat, patata azalak eta jateko sobrak eroaten genizkiola Petra zinekoari txerriarentzat. Harek papeleta bat eman eta zinera doan joaten ginen. Dotrinan ere, parrokoak papeleta marroi batzuk ematen zizkigun eta harekin ere zinera joaten ginen, Hainbeste puntu lortu ezkeru, papeleta bat lortzen zen. Lehenengo abadiak ikusten zuen pelikula eta gero guk, ebakita, noski!. Gogoratzen naiz pelikuletan bikotea hasten

bazen laztantzen edo, klak!, hantxe ematen ziotela kortea. Eeeeeeee! Hango protestak! Pentsatu orain zer ikusten den! Ordukoa larregi zen baina oraingoa ere larregitxo da.

Oroitzapen politik dauzkat gazte denborakoak. Gelatxorekin zenbat dantza egindakoak gara gu!. Behin, Gelatxoko Lorentzorekin, Ondarroara buelta egin genuen mendiz. Elgoibartik hasi, Markinatik segi eta Ondarroaraino ailegatu arte, bide guztia dantzan egin genuen. Soinua hartu eta tnendira! Horixe izaten zen guretzako planik onena.

Pan'anda San Bartolomeetan egiten genuen.

Plazatik Madalaraino kalejtrian lehenengo ilaran joaten ginen dantzan, geratu gabe. Dantzarako ere beti lehenengoak gu. Tangoak ikaragarri gustatzen zitzaizkigun. Dantza guztiak, baita vals-ak ere, baina tangoa... Euskal dantza ere primeran egiten genuen guk, atin-arina, fandangoa,... Bergaran hiru urtean lehenengoak ateratakoak gara, Eibanen, Oñatin, Zarautzen,... sari

mordoa irabazi genituen Pakok eta biok. `Agarruart` ederld eroaten zekien hark. Zer esango dut ba nik, ez da alfenik senarra izan, ezta?


Euskal dantza irakasten ere egon ginen. Zumaitik Pilar Beobide etortzen zen eta Santa Klaran 'Ingurutxo' erakusten genuen. Harekin zenbat dantza ikasi genituen!

Gauza askori buruz egin leike berba baina gaurkoz bapo. Hurrengoan niri asko gustatzen zaidan zerbaiti buruz hitz egitea nahiko nuke, futbolaz. Baina hori hurrengoan izango da.

**"Euskara, dantza, kantua,... horixe egiten genuen guk gazte denboretan"**

Atal hau ez da BARRENeN editoriala. Urtero 15 lagun iuguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nabi duena aukeratzen du.

## Barrak, Birrak eta Barreak







Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 74 41 12  
Publizitatea:  
w 74 37 04  
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
KPIETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADNINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreaza[degl, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maidar Elustondo, Jon Eugl, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Ihaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loio[ a, Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar. Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Fora  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



fundazioa  
..... rd c b

44 DANOBAT

44 GOITI  
GRUPO DANOBAT

## Sumisioa

**I** nolako ezustekorik ez apirilaren 6ko  
osoko bilkuran. Udala intsumitu izen-  
datu eta ejerzitoarekin ez kolaboratzeko  
gure eskaera ez zen onartu -HB, EA eta  
IUK alde bozkatu zuten- eta bost gazte  
balkoietan kateatu ziren, gaueko hama-  
rrak arte irauin zuelarik protestaldiak.

Herri honek jakin beharra dauka,  
eta batez ere GAZTEEK, PNV, PP eta  
PSEren botuekin Udalak "errekoluta-  
mendurako organoa" izaten jarraitzea  
erabaki duela. Argi gelditu da noren al-  
de dauden, ejerzitoarekin eta gazteen  
kontra. Gazteek eta herriak orokorrean  
gaitzesten duten bahiketa militarri la-  
guntza ematen jarraituko dute. "Adin  
militarrean" dauden gazteen zenendak  
ematen jarraituko dute, ejerzito espai-  
niarrak beraien balore zoragarriak era-  
kusteko, askatasuna, elkartasuna, ber-  
dintasuna, bakea... izan ezik, edozer.

Guztia interes eta koldarkeriaren-  
gatik. Gazteek, dagokien zerga "baka-  
rra, handia eta askeari" ordain diezaio-  
ten interesa. Inhabilitazioari beldurrik  
gabe, eserlekuan jarrita, urtero hainbat  
milioi pezeta xurgatzen jarraitzeko in-  
teresa. Zapaltzaileari, botorea eta inda-  
rra duenari, Euskal Herriari autodeter-  
minazio eskubidea ukatzen dionari,  
eskubideak zapaltzen dituenari... Aur-  
pegia emateko beldurra.

Jarrera hipokrita eta doilor horrek  
izen bakarra dauka: SUMISIOA.

Batzuen aurrean burua makurtzen  
badute, besteen aurrean puztu egiten  
dira. Oraingoan ere, Udaltzaingoak  
berarentzako kapitulu bat merezi du.  
Hamar polizia guretzat bakarrik. Ez al  
da gehiegizkoa? Behealdean zeuden  
bostek atea erdi zabalik sartuarazi gin-  
tuzten. Poltsak bertan uztea nahi zu-  
ten, Gillermo Garate alkateak fardelak  
sartzen ez uzteko esan zielako (gureak  
bakarrik). Beraien obedentzia absur-  
duaren mugara iritsi zen eta garrasi eta  
bultzada artean toaila, xaboia, bainu-  
jantzia eta txankletak zituen poltsa bat  
atxiki zuten, Norainio iritsiko dira?

Oharra: Udalak "Made in Spain"  
"Indar Armatu Profesionalen" propa-  
ganda egiten du. Jendeari izena emateko  
boletina eskaintzeko aurpegia daukate.  
Defentsa Ministeritzak izugarri esker-  
tzen die interesik gabeko (?) laguntza.

Gazte Asanblada

## Agur lagun bati

**A** gur Ramon Uriguen 'Etxegiña'.

Hau bai dela agur samina. Gure-  
gandik joan zara isil eta apalik, zarata  
handirik gabe. Hainbat aldiz irten ga-  
ra elkarrekin Santa Agedako koruare-  
kin behartsu eta gaixoentzat eskatzen  
eta batzen. Berrogeita hamar urte luze  
hauetan, lehenengo zure aitaren zu-  
zendaritzapean, Xanti Kortaberriare-  
kin gero, zure deiari erantzunez ondo-  
ren eta gaur egun Kepa Urainekin,  
zenbat aldiz irten gara Santa Ageda-  
ren izenean, bihotzean maitasuna eta  
eskuak zabalik, besteentzako lagunta-  
suna edo saritxoren bat eramateko.

Ramon, hauxe bai dela agur sami-  
na. Zuri omenaldi bat eskaintzeko as-  
tirik gabe joan zara gure albotik. Gure  
Jaungoikoak emango al dizu sari on  
bat goiko zero horretan. Ama Birjinak  
eta Santa Agedak emango al dizute  
ongi etorri haundi eta eder bat.

Goian Bego Ramon.

Zure lagun  
Iñaxio Arizmendiarieta

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK atalelan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzen: **Izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**



KEXAK

• Herritar batek deitu digu zera esateko: "King Kong-eko zubian Icaro eskultura jartzeko zenbait lan egin zituzten. **Es-kultura eusteko burdinezko errefotzua jarri zuten lurrean eta barandilari zati bat moztu zioten.** Beste egunean ume batzuk ikusi nituen jolasean barandilako tartea dagoen lekuan. Oso arriskutsua dagoela iruditzen zait, ume txiki bat bertatik sartzeko moduan. Ez dut pentsatu nahi zer gerta dai-tekeen umeren bat bertatik kolatu eta ibaira erortzen bada".



TXALOAK

• "Elgoibarko Alebin Futbol Taldekoek bihotz-bihotzez eskertu nahi diegu Angel Garate, Roberto Ruiz eta Alberto Perez Cortes futbol entrenatzaileei urtean zehar egindako Iana. Gure gurasoek dioten bezala, ez diguzue futbolearen jolasten bakarrik erakutsi, oraindik garrantzitsuagoa dena, pertsonak izaten erakutsi **diguzue.** Ez genuke ahaztu nahi Mintxetan lanean ibili eta gure gaiztakeriak jasan dituzten guztiak. Mila esker guztioi. **Aupa Elgoibar!!!!**"

• Gazte batzuek **Herri Institutuko zuzendaria** txalotu nahi dute, "futbito **gaineko zelaian frontoia** egin dutelako".

• **Guraso talde batek Ikastola** txalotu nahi du, "aurten ere **Haur Krosa** antolatu dutelako. **Jose Gurruixarekin** izan duten detailearengatik ere txalo handia merezi dute".

• Joan den ostiralean, apirilak 24, **Marta Carrascoren dantza ikuskizuna ikusten egon zen elgoibartar batek, Haritza Dantzari Taldea txalotu nahi du, "horrelako saio zoragarrixa ekartziagatik.** Asko gustau jatan, ikusgarrixa izan zan. Hurrengo dantza saioa ostiralekua bezelakua bada, beste txalo bat merezita izango dozue".

## BAI, ESAN?



**Ales Arrieta**

**DANOBA Teko Kontseilu Erretoreko presidentea**

Aste honetako deia kooperatiba munduarekin lotuta dago. Askok ez duzue jakingo kooperatibek urtero diru kopuru bat ematen dutela herriko hainbat proiekturi laguntzeko. Kooperatibako estatutuaren arabera, urteko irabazien parte bat herrian inbertitu behar dute. Gai honi buruz zerbait gehiago jakiteko asmoarekin deitu diogu **Ales Arrietari, DANOBA Teko Kontseilu Erretoreko presidenteari.**

**Urteko irabazien zati bat herrigintzan inbertitzen duzue, zergatik?** Kooperatibak sortu zireneko erabakia da. Kooperatiben filosofiaren oinarrietariko bat da inguruarekiko elkartasuna. Elkartasun hau, besteak beste, bi eratara azaltzen dugu: bat, inguruko jendeari Iana eskainiz, eta bi, irabazien %10a herrigintzan inbertituz.

- **Erabaki hau kooperatibak sortu zirenekoa dela esan diguzu, baina gaur egun ere berdin sinesten al duzue lege honen egokitasunean?** - Bai, urteak pasa diren arren, kooperatibismoaren filosofia bizirik dago oraindik, nahiz eta eguneroko lanean egokitze lan batzuk egin behar izaten ditugun. Baina inguruarekiko elkartasunak ez du aldaketarik izan eta bere horretan dirau.


- **Zein dira Danobatek azken urteotan lagundu dituen proiektu garrantzitsuenak?** - Denak ezingo ditut aipatu baina batzuk esatearren, Parrokiko obrak (4 milioi), Ekain proiektua (10 milioi), Erreminta Makinaren Museoa (13 milioi), Lanbide Hezkuntza ikastetxeak, BARRREN astekaria, Elgoibarko Kilometroak, Errotatxo Elkarteak, Gurutze Gorria, etab. dira Danobatek diruz lagundu dituen zenbait proiektu. Batzuk Elgoibarko Danobatek bakarrik eta Danobat Taldearekin batera beste batzuk.

- **Zein irizpide izaten duzue laguntzak izendatzeko orduan?** Ez daukagu aurrez ezarritako irizpide finkorik. Kontseilu Erretoreak eskari guztiak jasotzen ditu eta eskari bakoitza aztertu ostean hartzen ditugu erabakiak.



## ESKERTZA

*1998ko apirilaren 25ean, 68 urte zituela hil zen RAMON URIGUEN SODUPE "ETXEGIÑA"ren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



35

# Ird maiatzaren

# gea, booroka

*Aurrerapenaren eta, batez ere, teknologiaren aroa bizi dugu. Horrek badu abantailarik, baina gauza guztiek bezala, bere alde negatiboa ere argi eta garbi azaldu du industriari jasan duen mekanizazio eta teknologizazioak. Izan ere, aspalditik dator makinek pertsonen eskulana ordezkatzuko duten uste eta beldurra. Makinen tza gertatu da eta gaur egun, garai batean ehundaka langile pilotzen ziren enpresen tokian, makinak eta makinak sartu dira. Iraultza industrialaren ondoren, langabezia etorri da. Estatu espainiarrean langabezia tasa %20koa da. Irtenbidea? Sindikatuen ustez, besteak beste, 35 orduko lanastea premiazkoa dugu gizarte honetan. Hori izango da bihar, maiatzak 1, Langilearen Eguna, sindikatu eta langileen lema nagusia.*

**j**oan den ostegunean ordubeteko lanuztea konbokatu zuten sindikatuek. Laister, greba orokorrik ere izango dela entzuten da han eta hemen. Arrazoia? Langabezia tasa geldiarazteko aukerako irtenbide bezala, 35 orduko lanastea proposatzen dute gero eta aho gehiagok. Luis Migel Saezek, Uitik, Deba eskualdeko ELA sindikatuko arduradunak azaldu digunez, 35 orduko lan-astea kontestu orokor batean ulertu behar den puntu bat da. Bere hitzetan, "herrialde industrialetan langabezia tasa gero eta larriagoa da. Alemanian, Frantzian, Estatu espainiarrean, baita Japonen ere, gero eta langabetu gehiago dago. Hori ezin du inork ukatu". Teknologiak lekua jan dio pertsonari eta eskulana ordezkatzuz makinak jani dituzte enpresetan. Teknologiak eragin zuzena izan du

ekonomian, batez ere enpleguan, "garbi dado aurrerantzean ez dela enplegurik egongo denontzat". Uitik esan digunez, "alde batetik eta bestetik entzuten ari gara ekonomia ondo dagoela, goruntz egin duela. Eta ekonomiaren hazkuntzak enplegua sortuko duela sinestarazi nahi izan digute. Baina ez da horrela. Hori enpresen irabaziei kobertura emateko erabiltzen den gezurra bakarrik da".

Ordu estren kontrola eta soldata soziala

Uitiren ustez garbi dago zerbait egin behar dela, egoera kezkarria baita "eta gobernuak eta enpresariak ez baitute ezer egingo gauzak aldatze aldera".

1997ko uztailean ELA eta LAB sindikatuek dokumentu bat kaleratu zuten ondoko puntuekin:

- 35 orduko lan-astea.
- Ordu estren kontrola.
- 60 urte duten langileen jubilazioa. Gaur egun Euskal Herrian 15.000 pertsona daude 60 urte beteko dituztenak epe laburrera. Horiek jubilatuta eta bi urteko desenplegua jaso ondoren Seguritate Sozialarekin konbentzio berezi bat sinatuz gero, jubilatuta diren lekuan pertsona berriak kontratatu ahal izango lirarteke.

Soldata soziala. Langabetuek eta sekula lanik egin ez duten pertsonen soldata soziala deitzen dena jasotzean oinarritzen da. Europako hainbat herrialdetan martxan dago. Belgikan esaterako, ikasketak amaitu eta langabezia dagoen gazte batek gutxienezko soldata jasotzen du Gobenmaren eskutik lana topatu artean.

Uitik adierazi bezala, "ekonomia





ondo doala esaten dutenek gezurra diote. Beharbada banketxe eta enpresarientzat ekonomia ondo dago, eurek poltsikoak beteta dituztelako, baina zer gertatzen da herritarrekin? Zer gertatzen da langabezia dauden hainbat eta hainbat pertsonarekin? Nork sinestarako die horiei ekonomia ondo doala? Kapitalismo itsuaren islada besterik ez da bizi dugun egoera". Uitiren iritziz, "langileak hetri izan gara gaitzaileak. Lanik ez dago eta topatzen duenak egoera prekarioan lan egiten du, asteburuak barne, soldata oso baxuekin, aldikako kontratuak, ETTek kontratatuak, esplotatuak..."

## Lanpostuak mantendu

Roberto Aizpurua, UGT sindikatuko Eskualdeko arduraduna, Uitiren iritzi berekoa da. UGT ere 35 orduko lanastearen alde agertu da. Robertok azaldu digunez, "lan mundua berrantolatu behar da. Lanorduak gutxitu egin behar dira. Horrek produktibitatea igoaraziko du eta, gutxienez, lanpostuak mantendu egingo ditu". Formazio eta birziklapen profesionalarekin batera hori ikusten du Robertok erronkarik haundiena, "negoziatu egin behar da. Guztion eskubidea da lan duin bat izatea eta gaur egun eskaintzen dena prekaritate hutsa da,

ETTen esku daude kontratu miserableak". 35 orduko lanastea Alemanian duela 5 urte jarri zen martxan metal arloan eta ondo funtzionatu omen du, Robertok esan digunez. Hala ere, "Patronala kontra dago, irabazi azkarrak izateaz bakarrik arduratzen baita". Garai batean lanastea 45 ordutik 40 ordura jaitea lortu zen, "gaur egun bizi dugun egoera antzekoa da. Denbora beharko da seguruenan, baina lortu lortuko da, lortu egin behar dugu eta".

35 orduko lanastearen aldeko garaxia izango da biharkoa, "Maiatzak langileen eguna.

## Zer irizten diozu 35 orduko lan-asteari?


### ASCEN ARRESE Perisena administraria

"Printzipioz ados naio, lanpostu berriak sor daitezkeela pentsatzen dot, batez ere jende gaztiantzat. Hala ere, irtenbide hau luzera ikusten dot. Momentu honetan lan aldetik oso ondo gabiz baina urte gitxitan pasau gera krisi haundi batetik egoera on batera. Oin dana eskatzen dabe atzorako, lehenhailen, eta horrek suposatzen dau ordu estrak sartu bihar diazela. Pertsona berri bat sartzen bada lelengo ikasi in bihar dau eta enpresiak denboria gaitzen dau hor. Hori dana aldatzeko denboria biharko da. Nik usten dot beste neurri batzuk ere badaudela, adibidez, jubilatza aurreratza. Pertsona berri bat hartu lanerako eta hori preparau biharko litzake jubilaiko dan beste baten lana betetzeko. Hori eraginkorra ikusten dot. Edo hestela, badakitz ernakume batzuk egongo ziala prest urte asko lanian egon eta gero egun erdiz lan itxeko, eta hori ere lanpostuak sortzeko ona izan laike".



### ASIER ZENGOTITA Fresadorea

"Alde naio. baina ez dot ikusten langabezia konponduko dabanik. Langabezia bajatzia ez da bakarrik jende guztia lanian egotia, lana kalidatez kua izatia eta kontratu duin batekin baik. Horretarako, hasteko ETT guztiak desagertu bihar dia. Beste gai inportante bat ordu estrena da. Edozein lantegitan ordu estra pila bat sartzen dia eta ez dakitx 35 orduko lan-astia jarritxa ere ordu estrak amaitzuko zian. Ordu estren kontra in bihar da gogor. Argi dau enpresarixueri hobeto urtetzen jakuela ordu estrak ordaintzia langile berri bat kontratatza baino. Hori bai, 35 orduko lan-astia izanda ere, soldatia mantendu in biharko litzake, ze bizitza maila ez da bajauko. Argi dauana da Iortzen bada jendian presivan bitxartez lortuko dala, gobernua presionau bihar da alde guztietatik, ez bakarrik sindikatuen esku lagata edo langilek parualk inda, batez ere langabetuak dia protagonistak. Danon presiva izan bihar da".



### KARMELO BILBAO Etxene-ke gerentea

"35 orduko lan-astia eta soldata berdina nik ez dot ikusten ondo. Lanpostuak sortzeko formula 35 orduko joradia eukitzia bada ados, baina esfortzua danok in bihar dou, eta ez enpresarixak bakarrik. Langile bat ados badao jornada bajatziakin, onartu biharko dau soldata ere piskat bajuaua izatia, ahaIlegina danon partetik izatia, eta ez enpresarixuena bakarrik. Pieza bat amaitzeko 40 ordu bihar badia eta langile batek 35 ordu sartzen baditxu, nik beste bati pagau bihar dizkiot 5 ordu eta horrek kostu bat daka. Ez hori bakarrik, ekonomia momentu honetan ondo dao baina inork ez daki zenbat iraungo daban. 25 urte daruat lanian eta sekula ez dot ezautu oin dala host urteko krisixa. 13 langile izatetik 22ra pasau gera eta ondo gauda, baina noiz arte? Gainera, enpresa auxiliarra gera eta horrek esan nahi dau klientian menpe gaudela eta klientiak ipintzen ditxula plazuak. Gauzak ez dia hain errezak".



# Ba al duzu Amaren Epunean oparirik egiteko ohiturarik?



**MARUJA VIEITEZ**

44 urte, etxekoandrea

Bai, serne-alabek eta senar-rak zerbait oparitzen didate urtero. Iaz, adibidez, pultsera bat erregalatu zidaten. Nik telefonoz deitzen diot amari Galiziara.



**SALBADOR IZAGIRRE**

46 urte, teknikoa


Gurian ez dao holako ohi-txurarik. Ama ez da gurekin bizi eta normalian gure etxian ere emaztiakin ez dou detaierik eitzen. Aitxan eguna ere ez dou ospatzen.



**MIKEL OLAIZOLA**

6 urte, ikaslea

Bai. amamakin juten naiz zeozer erostera. Aurten ondiok ez dakitx zer erregalauko diogun. Gainera, patxo haundi bat ematen diot.



**SANTIAGO HERNANDEZ**

44 urte, taxista

Ez, ez dugu ospatzeko ohi-txurarik. Oparirik ere ez da izaten, ez gara deitailistak baina emaztea zoriondu cta mimatu egiten dugu, merezi du eta.



**BIRJINIA MUGERZA**

25 urte, kamarera

Bai, txikitan amari egiten genion erretialua baina oin ni naiz ama eta papelak 4.11 datu dia. Semiak esko.lan eindako zeozer erregalitzen dia.



**MARI JOSE ONDARZA**

38 urte, irakaslea

Amari beti eitzen diogu de-tailtxoren bat baina ncri ez, semiak ondiok 10 urte dakaz eta. Jakin badakixe aman eguna da]a baina ez dogu breziki ospatzen.

## 01 ERK IIGOGAILUAK




Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua


943 20 35 15 ABERIAK 943 20 31 25

Bista Eder, 11 (sotanoa) \*20600 E1BAR

01 Ar`CX1100  
Tok.ine



Aibail-avti+za



San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 943 74 07 04 – 908 87 39 40

## OLASO TRBERNA

Olaso industrialdea, 15  
Tel: 943 74 31 85

-EGUNEKO MENURK-  
-LRRUNBOTETR-  
Rabak Olagarroa • Fritoak  
-GRUEZ-  
Menu ekonornikoak eta  
plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako konhiteak, afariak, luntHak, hanketeak..,
- Enkarguak egiteka aurrez deitu

ESKR EZFIZU BURREKONTUE1  
INOLFIKO KONPROMEZURI1K 6FIRE!

Ordutegia: fistelehenetik ostiralera 7:00-22:30  
Larunbatetan 9:00etatlk aurrera





# Osasunean adituak

## GAIA

111~111~11

### Loaren nahasmenak

**l**alure bizitzaren heren bat ematen dugu lotan, eta lorik egin gabe ezin daiteke inor bizi. Horregatik dute horrelako garrantzia loaren gorabeherak. Bi multzo nagusitan bereiz daitezke loaren arazoak:

- Lo egin nahi eta ezin dutenak.
- Lo egin nahi ez baina lo gelditzen direnak. Lo dagoenean arnas arazoak dituen jende ugari dago baina are handiagoa omen da insomnioa izaten duten pertsonen multzoa. Zer egin? Lo arazoak dituen pertsona batek, eta batez ere lo hartu edo lotan egon ezin duenak, zenbait aholku janaitu beharko lituzke:
- Ohera joan aurretik gauza bera egin egunero.
- Ordu berean esnatu.
- Gaez ez begiratu erlojuari, larritasuna handitu eta loa uxatzen baitu.
- Logela kolore apalekoa izatea komeni da eta telebista edo antzeko aparailurik ez eduki.
- Ez badago logurarik, ez oheratu eta ohean egonez gero, jaiki. Pertsona bakoitzak loaren ohiturak sortu behar ditu, horrela, ohitura horiekin burtnuinak lo egiteko ordua datorrela jakingo du.

## OSASUN KEZKAK:

### Zenbatean beh5n egin behar da ahoko garbiketa?

entisten gomendioen arabera, onena urtean behin dentistarengana errebisioa egitera joatea da. Berak ikusiko du garbiketa beharra dagoen ala ez. Dietak, erretzeak, kafea hartzeak eta, batez ere, norberaren txistu motak dute eragina, hau da, pertsona bakoitzaren arabera, sarro gehiago edo gutxiago sortzen da.

Ahoko garbiketa higienista batek edo dentista egin dezake. Garbiketa ez da sekula kalterako eta ez du esmaltea altxatzen. Piorrea geratzeko metodo bakarra ahoko garbiketa sakona egitea da.

### + DENTISTAK

#### Agustin Sanchez

△ Arrillaga, 8 • Tel: **74 37 47**

..... Astelehena-ostirala:  
9:00-13:00 / 16:00-17:00

..... Astearte, asteazkena, osteguna:  
9:00-13:00 / 16:00-19:00

#### irigoien

..... Errosario, 8 • Tel: **74 36 79**

### + MASAJISTAK

#### Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **74 08 96**  
..... Egunero: 15:00-20:00

#### Victoria Iraegi

□ Migel Urruzuno, 31 • Tel: **74 07 70**  
..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### + OPTIKAK

#### ikus (optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **74 37 34**  
..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

#### Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **74 03 59**  
..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### + ORTOPEDIAK

#### Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **74 35 62**  
..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### + PODOLOGOAK

#### ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **74 36 56**  
..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

#### hiaki Rhvero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **74 32 90**  
..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu **74 37 04ra**

Osasunari buruzko kezka bat argitzea nahi baduzu, deitu **BARRE**Neko **74 41 12ra**

## • Ikastolako DBHko ikasleak Elbarko Antzerki Topaketetan

Edurne Lasaren ardurapean, Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako 14 ikaslek antzezlan bat aurkeztuko dute Eibarko Eskolarteko Antzerki Topaketetan. Maiatzaren 21ean, arratsaldeko 15:00etan, "Magia dela medio" obra taularatuko dute elgoibartarrak. Saioa Eibarko Unibertsitate Laboralean izango da.

## • Batdergoetarako eta erdi eta goi mailako zildoetarako matrikula epea

Herri Institutuak matrikula irekiko du maiatzaren 4tik 18ra bitartean batxilergoetarako eta erdi mailako zikloetarako. Hiru batxilergo mota daude: natur eta osasun zientziak, giza eta gizarte zientziak eta teknologia batxilergoa. Erdi mailako zikloetan karrozeria, automozioa eta barne komertzioa daude aukeran. Honez gain, beste adar berri bat eskainiko da, erizain laguntzailea. Goi mailako zikloetan adar bakarra dago: administrazio eta finantzak. Azken ziklo honetan izena emateko epea ekainaren 16tik 19ra arte luzatuko da.

## • Oliadura eta Gaixoen Eguna

Maiatzaren 17an gaixoen oliadura (unciOn) egingo da eguerdiko 12:30eko mezan. Egun berean ospatuko da, baita ere, Gaixoen Eguna. Oliadura adinekoei eta gaitasun larriren bat izanik ere, elizara joateko gai diren Parrokiko eliztarrei zuzenduta dago, Madalakoek aparte egingo baitute. Joan nahi dutenek maiatzaren 13a baino lehen eman behar dute izena Parrokian (74 08 42).



zutailea den Imanol Aldaregiak zuzendu zuen elizkizuna. Kasik bi ordu iraun zituen zeremoniak, eta neska-mutilen guraso eta eliztar ugari hurreratu ziren. Elizkizunean gazteek aktiboki hartzen dute parte pasarteak irakurriz, liturjia zuzenduz etab. Zeremonia elebiduna izan zen. Hiru pausoak egin ondoren, hau da, uraren liturjia, eskuak buruan jartzea eta azkena, bekokia olio z igurtzea, sendotzari baitz esan zioten 56 gazteek.

Jose Luis Belloso da Madalako Kultu eta Ebanjelizazioarako Zentroko arduraduna eta berak esan bezala, "3 kurtso egiten dira sendotza heziketa osatzeko. Gurasoen erabakiz jasotako bataioari berriz baietz esatea da sendotza eta beraz, beharrezkoa da prestakuntza jasotzea". Madalako Ebanjelizazio Zentroan 6 monitorek egiten dute lan neska-mutilekin.

## 481 korrikalari izan ziren Haur Krosean

Jose Gurrutxaga lasterkariari omenaldi beroa eskaini zitzaion

Eguraldiak bat ere lagundu ez arren, herriar ugari hurreratu ziren pasa den domekan Plaza Handira herriko neska-mutilak korrika ikusteko. 461 haurrek korritu zuten San Bartolome Ikastolak antolatutako Haur Krosaren 5. edizioan. Eguerdiko 12:30ean hasi zen Iehen lasterketa, iragarritako ordua baino zertxobait beranduago, hileta elizkizuna baitzegoen Parrokian. Lehenengo lasterketa hasi ondoren, bata

bestearen segidan izan ziren gainerako 13 lasterketak. Etenik gabeko euripean egin ziren proba guztiak. Sari banaketa ekitaldiaren ostean, Jose Gurrutxaga korrikalari beteranoari plaka bat eman eta Ikastolako haurrek aurrakua dantzatu zuten Joserren aurrean. Elgoibarko Ikastolakoek eskerrak luzatu nahi dizkiete V. Haur Krosa antolatzen lagundu zuten erakunde, elkarte eta pertsonen baita parte hartu zuten neska-mutil guztiei ere.



## Madalako 56 gaztek konfirmazioa hartu zuten ostiralean

Madalako Kultu eta Ebanjelizazioarako Zentroko 56 gaztek sendotza hartu zuten pasa den ostiralean. Sendotza elizkizuna arratsaldeko 20:00etan izan zen Parrokian eta Gotzaiaren lagun-

## Lasterketa

### bakoDzeko biabazieak

- Mirari Egaña., .. 1'21"
- Danel Mendibil . . 1'15"
- Maialen Salaberria . . 1'14"
- Iker Isasi..... 1'10"
- Olatz Uriguena. . . 2'34"
- Imanol Perez . . . 2'22"
- Alazne Eskudero. . . 2'20"
- Aitor Arrillaga . . . 1'10"
- Dorleta Aranberri. . . 3'48"
- Nerea Zubiaurre. . . 3'48"
- Antton Alberdi . . . 3'31"
- Maria Maguregi . . . 4'00"
- Julen Merino . . . 3'30"
- Ana Etxaniz . . . . . 5'45"
- Jabier Ausin . . . . . 5'49"
- Nuria Revuelta . . . 6'33"
- Zelai Garzia . . . . . 5'39"
- Oihana Apellaniz . . 6'36"
- Iñigo Lariz . . . . . 5'03"



## Ramon Uriguen I Ettegiar, agur betirako



Joan den larunbatean Ramon Uriguen 'Etxegitia' hil zela jakin genuen. Santa Agedako koruetan 'beterano' en artekoa zen, 68 urte zituen eta 10 urterekin hasi zen Santa Eskean bere aitaren, 'Etxegiña,' eza-gunaren eskutik. Iaz elkarrizketa egin genion eta ondorengo

hitzak Kepa Urain koruko zuzendariak esanak dira: "Gizon umila da, ezkutuan geratzen den lan asko egiten du eta horrek du meriturik handiena. Tinko eusten dio Santa Eskearen ohiturari". Hitzok ondo baino hobeto jasotzen dute Ramonen benetako sena. Elkarrizketa hartan Ramonek esaten zuen bezala, bere nahia "Santa Eskerako suplentia topatzia" zen, "behin laga ezkerro desagertuko ote dan beldur naiz. Nik luze jarraitxu nahi dot koruetan behintzat". Aurtengo otsailean, gripeak ikututa bazegoen ere, ez zuen Santa Eskean kale egin. Azken Santa Eskea izan zen berarentzat, baina ziur gaude, Ramon, Santa Eskea ez dela desagertuko. Goian bego Ramon Uriguen.

## • Halea garbitzeko makina berria ikusgai

NC 200 izeneko makina frantsesak ur beroaren bidez garbitzen ditu kaleak. Joan den larunbatean, Eibarren lehenengo eta Elgoibarren gero, pare bat erakustaldi egin zituzten saltzaileek Mankomunitateko teknikoek, eta politikoen aurrean. Makinak 80°ko tenperaturako ura erabiltzen du kaleak garbitzeko eta runbatean Plaza Handira hurreratu zirenek ikus ahal izan zuten benetan txukun eta garbi lagatzen duela lurra. NC 200 makinak 25 milioi pezeta balio ditu. Mankomunitatea gaia aztertzen ari da mantenuak zein kostu izango lukeen ikusi eta erosteak merezi duen ala ez erabakitzeko. Gaur egun 30 makina inguru daude martxan Europan zehar eta Donostian ere egin dute pforbarik. Bat edo batek NC 200 makinaren eragina zein den jakin nahi badu, Parrokia aurrera hurreratu eta lurrera begiratu besterik ez du.



## Anari eta Betagarri Gaztetxean

Zuhaitz Astialdi Taldeak eta Elgoibarko Talde Antimilitaristak elkarlanean antolatu zuten kontzertuko argazkia da goian azaltzen dena. 'Anari' kantariak hartu zuen parte lehenbizi. Gerraren aurkako poesia bat irakurri zuen eta abesti mordoska ere kantatu zituen. Ondoren 'Betagarri'-koek hartu zuten errelebu eta bat baino gehiago saltoka eta dantzan jarri zuten. Gaztetxea jendez gainezka ez bazegoen ere, guztira 100 sarrera saldu ziren, joan ziren batzuek ederki pasatu zutela adierazi digute.



## Polito Ibañez Cubako kantaria Oraiko tabernan

Oraiko tabernako iluntasunaren epeletan, Kubako Polito Ibañezek kantaldia eskaini zuen pasa den ostegun gauean. Ikuslego handirik ez zegoen arren, egon ziren 40 bat lagunek benetan atseginez entzun zuten Politoren saioa. Giro oso berezia sortu zuen Kubakoak, umoretsu eta atsegina azaldu baitzen. Kantautoreen ildoko gai intimistak lantzen ditu Polito Iballezek, baina Silvio Rodriguez edo Pablo Milanese-en abestiak baino erritmo biziagoak.

*Jose Luis Lorenzo 40 urteko Orenseko galziarra da. Gaur egun Ermuan bizi da. Gure artera ekartzearen arazoia salsa eta Karibeko erritrnoekiko zuen zaletasuna da. Dantza hauek berarentzako zaletasuna badira ere, Elgoibarko Kiroldegian irakasten ditu. Aurretik, markinarrak, elgetarrak eta eibartarrak dantza alai eta bero hauetara hurbildu ondoren, elgoibartarrek aukera paregabea dute orain. Jose Luisek lagun giroa eta dantza exotiko hauen alaitasuna ziurtatzen ditu bere ikastaroetan.*

## "Dantzak pertsonen arteko erlazioak sortzen ditu"

— **Zer dantza mota irakasten dituzu?**

- Salsaz gain, merenge, kunbia edo Kolonbiako 'ballenatoa', batxata, cha-cha-cha,... Karibe aldeko dantza eta erritmoak. Gaur egun diskoteketan dantzaten den salsa, adibidez, jende askok Kuban sortu zela pentsatu arren, New York-eko auzo Latinoan omen du jatorria.

— **Zein dira dantzari on baten ezaugarriak?**

- Ez da ezer berezirik behar. Erritmoa jarraitzeko gaitasun minimo bat bakarrik eskatzen da. Guk pausoak irakatsi eta gehienez, akatsak zuzentzen dizkiogu ispilu aurrean. Dantza alai eta tentsualak direnez, dantzaria ere halakoa izatera bultzatzen dute.

— **Non ikasi zenuen dantzan?**

- Orain dela 7 bat urte Eibarko Kiroldegian, Nerea

Lodosa irakasle nuelarik hasi nintzen dantzak ikasten. Lehenik, rock and rolla, valls-a, pasodoblea eta tangoa ikasi nituen. Ikasitakoa praktikatzeko gogo sortu zitzaidan eta inguruan mota honetako dantzalekurik ez zegoenez, Bilbora joaten hasi nintzen. Baina hango dantzalekuetan salsa eta merenge bezalako erritmo beroak ziren nagusi eta ez nik ikasi nituenak. Orduan sortu zitzaidan dantza hauekiko zaletasuna. Esperientzia gehiago dutenengandik eta praktikaren bidez gehiago ikasten joan naiz, praktikatzea baita ikasteko modurik egokiena.

— **Harrera ona izan al dute ikastaroei Elgoibarren?**

- Oso ona. Izan ere, salsak adin eta klase sozial guztietako gazte nahiz zaharrak erakartzen ditu. Beste musika mota batzuk, aldiz, jarrai-

tzaile konkretuagoak dituzte, bakalaoak, adibidez, 14 eta 25 urte bitarteko gazteak erakartzen ditu. Ezbzberdintasun hau ikusteko dantzalekuetara joan besterik ez dago. Salsa dantza mota unibertsalena da eta behin probatuz gero, ezin da utzi.

— **Modan al daude dantza hauek?**

- Niretzat moda azkar pasatzen den gauza bat da. Modak iragankorrak izaten dira, urte bat edo bi modan egon eta desagertu egiten dira. Salsaren kasuan, aldiz, modan jarri zen eta bere arrakasta egonkorra da. Gaur egun, gero eta salsa dantzaleku gehiago irekitzen ari dira eta gainezka egoten dira. Salsaren 'sukar' moduko bat bizitzen ari gara eta bere zabalkundea geldieztina da.

— **Zergatik horrelako arrakasta?**

- Dantza ikastera baino, beste zerbaiten bila etortzen da jendea gehienetan. Erdi deprimaturik etortzen badira, hemen beste pertsona batzuekin harremanetan jartzen dira, hitz eginez, dantzatzuz,... Elkar komunikatzea asko kostatzen zaigu, esaterako, taberna batera zoaz eta izugarri kosta-tzen zaigu neska edo mutil bati atsegin zaigula adieraztea. Baina dantzak ateak irekitzen ditu giza erlazioetan, batez ere, pertsonen arteko distantzia txikiagotu egiten duelako.

— **Hasi berrietan lotsarik igarri al duzu?**


- Hasieran bai baina segituan irekitzen da jendea musika eta giro atseginari esker. Musika oso garrantzitsua da. Atzerrira badoaz salsa disko benienak ekartzeko eskatzen diet nire ikasleei.

JOSE LUIS LORENZO

### EESTEK ESANA

"Bere lanean oso erresponsablea eta serioa da, eta oso pertsona jatorra".

LOURDES ZARIÑAS, ikaslea








ilabete honetako argazkia **Kontxita Urbietak** laga digu. Esan digunez, Garagar-tzan aterata dago, Alzibar familiaren etxean. Erretratuak 40 urte inguru ditu, 1958-59

urtearen buelatan atera baitzen. Bertan ikus ditzakegun emakumeen izen-abizenak ondokoak dira: Goian, ezkerretik hasita: **Arantza Alzibar, Dolores Arakistain, Edurne Bergaretxe (t), Kontxita Urbietak** eta **Pakita Arakistain (t)**. Behean: **Mari Jose Usatorre, Maribel Lazarobaster** eta **Juanita Ulazia**.



## ESKERTZA

*1998ko apirilaren 20an, 86urte zituela hil zen JOSE MARIA ASTIGARRAGA AROZENaren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# jubilatuen etxera

**Mendaroko hainbat jubilatu ezinduen egoera kontuan hartuta, Udalak proiektu bat martxan jartzea erabaki du. Helburua, etxetik ia atera gabe bizi diren jubilatuak laguntza eskaintzea da eta horretarako, berritarren artean deia egin dute nagusiekin egoteko bolondresen bila.**

**M**omentuz sei pertsona ari dira lau jubilaturik euren laguntza eskaintzen. Hala ere, Udalaren asmoa laguntza ahalik eta jende gehienari helaraztea da eta zenbat eta pertsona gehiago inplikatu hobea, batez ere gazteak badira. Interesatuak Mendaroko Udalera jo behar dute.

Laguntza jasotzeko jubilatuak beharrezkoa dute "Lagun Betikoak" elkartearen bazkide izan eta urteko 1.000 pezetako kuota ordaintzea. Hortik aurrera, bolondresak etxetik atera eta etxera eramango dituzte, bisitan joango zaizkie eta pasiera bat ernatera ere aterako dituzte.

## Gizartearentzako baliotsuak

Proiektua martxan jartzearen arrazoia, 65 eta 75 urte bitarteko pertsona ezinduei gizartearentzako baliotsuak direla jakinaraztea da. Badutela aukerarik beren adineko jendearekin elkartzeko eta beraiez arduratzen den jendea badagoela azalzea. Honek ez du esan nahi bolondresak ezinduharen familak bete beharko lukeen papera

beteko dutenik. Baina gerta daiteke, familak ez izatea nahikoa denbora pertsona hauez behar bezala arduratzeko eta kalera ateratzeko. Kasu horietan, ezinduek egun osoa etxean pasatu beharrean, helburua bolondres hauek jubilatuak egon eta hitz egitea da, elkar komunikatzea eta erlazionatzea.

Duela gutxi jarri da martxan esperientzia berri hau baina momentuz prest azaldu diren pertsonen artean benetan harrera ona izan du. Aregiari, Lagun Betikoak jubilatuak egoitzara joan eta karta joan eta abar gustura baino gusturago tzen dira.

## Maiatzerako taldea osatu nahi da

Proba bezala jarri da martxan proiektua. Izan ere, hasiera batean 20 pertsonak eman zuten izena bolondresen laguntza jasotzeko baina gero batzuek bertan behera laga zuten eskaria. Horregatik, aurrera begira eta proiektuaren funtzionamendu ona ikusita, Udalaren asmoa ahalik eta jende gehien animatzea da. Horretarako, ezinbestekoa da laguntzaile talde bat osatzea. Printzipioz jubilatuak prest



*Bolondresak etxetik ateratzen dituzte ezinduek.*

azaldu dira baina kontuan izanik sarri gurgildun aulkiak eta abar garraiatu behar izaten direla, benetan aproposa litzateke herriko gazteak ere animatuko balira euren laguntza emateko. Asmoa maiatz alderako taldea martxan jartzea da. Horretarako, zerren-



da bi egingo dira. Bat laguntza emateko prest daudenekin eta bestea laguntza jaso nahi dutenekin eta hauek dituzten beharrek. Izan ere, batzuek etxetik ateratzea bakarrik nahiko dute, beste batzuek etxera bertara jendea bisitan joatea, izango da kalean zehar buelta bat eman nahi duenik ere eta abar. Horien guztien behar eta nahiak jaso eta laguntzaileekin koordinatu beharko dira. Gauzak bideonetik badoaz, proiektu honen helburuak betetzea lortuko da. Ez da gutxi. Azken batean, herrian bertan dauden hainbat eta hainbat jubilatari bizipoz emango baitie laguntzaile bolondres hauek.



## "Bolondresak gauza gutxi eginez poz handia ematen diete jubilatuer

**- Proiektu berria jarri duzue martxan. Mendarotarrek erantzungo al dute?** Orain arte ondo ari da erantzuten jendea. Azken batean, laguntzaileek oso gauza gutxi eginez, egun osoa etxean pasatzen duen jendeari izugarritzko poza ematen diete. Gainera, bolondres lana egiten dutenek esperientzia izango dute era honetako lana beste enpresa batean egin nahi badute.

**- Ba al dago horrelako esperientziarik inguruko herrietan?** - Ez, momentuz berria da. Badaude hirugarren adineko pertsoneri laguntzeaz arduratzen diren erakundeak, esate baterako, *Nagusilan*. Aldundiak antolatzen ditu eta herriz herri ibiltzen dira, baina horrelako zerbait baino nahiago genuen beste proiektu bat antolatzea herritarrek.

**- Laguntzarik ba al dago?** Proiektu hau martxan jartzeko ez da diru asko behar. Ez da material gehiegi behar: kartak, aldizkariak eta abar. Dirua tuen elkarteko bazkideen artean jartzen da eta gehiago behar bada, Diputazioak jubilatuen ekintzetarako ematen dituen dirulaguntzetatik ateratzen da.

**- Zenbat pertsona daude laguntza beharrean Mendaron?** - Oraingoan, lau pertsonak eman dute izena. Bi andra eta bi gizonak.

**- Zein eratako laguntza eskainiko zaie?** - Hasiara batean etxetik ateratzen hasiko gara. Gero, denborarekin eta konfidantza gehiago dagoenean, etxeetara bisitak egiteko asmoa dugu.

**- Proiektuan azaltzen denez, jubilatuek gizarteaz asko lagun dezakete.** - Bai, hala da. Gaur egun jubilatuek nahiko baztertuta daude baina denborarekin demostratu nahi da jubilatuek askok euren laguntza eman dezaketela eta ez dutela zertan baztertuak egon.



**Ana Pagoaga**  
Gizarte Laguntzailea



**Mariano Garate**

**- Gustura al zaude jasotzen duzun laguntzarekin?** - Bai, oso gustura. Ibiltzeko zailtasuna daka-gunontzat oso ondo dator. Lagunak ikus ditzaket kalian, karta jokuan ein.,

**- Noiz hasi zinen laguntza jasotzen?** - Ointxe hasi naiz eta ilusio handixa dakat. Mereziko dabala pentsatzen dot.

**Zer iruditzen zaizu proiektua?** - Nere ustez behar zan horrelako zerbait. Zaharroi ibiltzia gus-tatzen jaku, batera eta bestera jun eta jendiakin egotia eta holako proiektuekin in ezingo genduken gauzak itxeko aukeria dakagu.

## Iñigo Lazkano txirrindulari lasterketan txapelduna

Apirilaren 4an Mendaron egin zen 2. urteko kadete mailako txirrindulari lasterketan mendarotar bat izan zen txapelduna, Iñigo Lazkano. Ehunetik gora txirrindularik hartu zuten parte eta horien artean lau mendarotar izan ziren: Ander Zulaika, 4. iritsi zena, Jurdan Ezenarro eta Egoitz Mendikute. Mendarotar txirrindulariek egoera onean daudela erakutsi zieten lasterketa ikustera hurreratu ziren guztiei. Giro polita sortu zen.

## ❖ Bizitzaren ohitura osasuntsuei buruzko hitzaldia

"Lagun Betikoak" Jubilatuen Elkarteak antolatuta, hitzaldia "Bizitzaren Ohitura Osasuntsue"i buruz datorren asteazkenean, maiatzak 6. Hitzaldia arratsaldeko 16:00etan hasiko da Kultur Etxean eta hizlaria Rosa Azkue geriatra izango da. Nahi duten guztiek ateak irekiak dituzte bertara joateko.

## Lorazaitza ikastaroa

Azken bi asteotan lorazaintzari buruzko ikastaroa izan da Mendaron. Herritarrek loreei buruzko hainbat eta hainbat gauza ikasteko aukera izan dute Donostiako loradenda bateko bi lagun eskutik. Guztira 30 ikasle hartu dute parte Jubilatuen Biltokian izan den ikastaroan. Ikastaroaren zenbatekoa 100 pezetakoa izan da klaseko eta amaieran ikasleek egindako lanak zozketa egin ziren.

## Euskal Bizikleta Mendaron

Maiatzaren 27 eta 28an Euskal Bizikletaren helmuga eta irteera Mendaron izango dira. Nazioarteko txirrindulari lasterketa honetan munduko kirolari onenek hartuko dute parte, horien artean Olanok eta Zullek. Egun horietan izango diren antolakuntza lanak kontuan izanik, Udalak alde aurretik barkamenak eskatu nahi dizkie herritarrei eta, bide batez, antolatzaileek emandako aginduak eta aholkuak betetzea eskatzen du. Era berean, antolakuntzan lagunduko duten guztiei eta publizitatearen bidez parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkie.




## Etxebizitza gehiago eraikiko dira

Azken urteotan etxebizitza ugari ari dira eraikitzen Mendaron. Dagoeneko 30 etxebizitzaren eraikuntza amaitzear dago eta hasi berriak dituzte beste 12 etxeren obrak. HOITeZ gain, gaur bertan izan den plenoan Udalak baietza eman dio Vicon enpresak 30 etxebizitza eraikitzeko aurkeztu duen proiektuari.

Bestalde, Ospitalaren maldan txalek egiteko "28, txaletak I" eta "29, txale-

letak II" proiektuak Aldizkari Ofizialean argitaratu dira. Jendeak 30 eguneko epea du emendakinak aurkezteko. Proiektuaren arabera, Kapaingoan hasi eta Bideburura bitartean eraikiko dira familibakarreko etxebizitzak eta gutxienez, 500 eta 800 metro karratu izan behar dute. Etxeek sotoa eta hiru solairu izango dituzte eta poligonoak kirol-instalakuntza publikoak ere izango ditu.



**KiliBaRREN** Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Andoni Zulaika, Ander Zulaika, Ibai Idoeta, Ion Larrañaga, Josu Motriko, Anibal Cotrina, Iñigo Lazkano, Unai Muñoz, Ruben Rios, Egoitz Horrillo, Jurdan Ezenarro eta Xeber Loiola.

**Pr** Mendaroko Udalaren 777rj dirulaguntzarekin argitaratua



# PEDRO MIGEL URRUZUNO

idazle elgoibartarra hil zeneko

•7z urteurrena  
il M4-1q7<sup>2</sup>,1  
I).

EGITARAUA



Antolatzailea



Elgoibarko Izarra K. E.

Laguntzaileak



Elgoinarko  
tidala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

MAIATZAK 5, asteartea

19:00 MAHAINGURUA

"Literatura eta abertzaletasuna".

Partehartzaileak: Hasier Etxeberria,  
Mikel Hernandez Abaitua, Iñaki Perez  
Armendia eta Esteban Antxustegi.

Moderatzailea: Andres Alberdi.

Lekua: Kultur Etxea

MAIATZAK 7, osteguna

19:00 MAHAINGURUA

"Zergatik dago hain emakume gutxi  
literaturan?".

Partehartzaileak: Arantxa  
Urretabizkaia, Arantxa Iturbe,  
Yolanda Arrieta eta Miren Agur Meabe.

Moderatzailea: Miryam Villasante.

Lekua: Kultur Etxea.

MAIATZAK 8, ostirala

19:00 "TENTAZIOAK"

Ipuin liburuaren aurkezpena.

jasone Osoro, liburuaren egilea, eta  
Xabier Mendiguren, idazle eta editorea.

Lekua: Kultur Etxea.

MAIATZAK 15, ostirala

22:00 "LORELEI" taldearen

kontzertua.

Lekua: Herriko Antzokia.



A

Argazki hau 1928 edo 1930 urtekoa dela esan digu Juanito Etxanizek, ziur jakiterik ez dago. Aita Agirre plazan dago aterata erretratua eta argazkikoak "Once Leones" izenez ezaguna zen kuadri]ako kideak dira.

Ezkerretik hasita, atzeko ilaran: Jose Zangitu, Primitivo Iriarte, Luis Etxaniz, Bitor Barrutia, Domingo Oria, Pepe de La Cruz eta Migel Etxeberria.

Makurtuta: Rufino Unzueta, Angel Riaño, Alberto Gurtxaga eta Maximo Conde.

Erretratuko guztiak daude hilda, Luis Etxaniz izan ezik.

**HERRI-GAIN  
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4  
(☎ 943 74 30 40) ELGOIBAR

**1111QUE**

**IDAIS**

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 rl 943 74 33 92 ➔

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**IDIEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 943 74 28 74 - 74 05 70





## Kike Ormaetxea

- **Adina: 45**
- **Haundirekin bizitako unerik gozoena?** Igoeraren aurreko hilabete osoa.
- **Eta latzena?** Lehen urtea. Ez genuen nik nahi neuna lortu eta zure lana alferrikakoa izan dela ikustea gogorra da.
- **Zein kamiseta oparitu zizuten umetan?** Eibarkoa.

- **Elgoibar uzten duzu baina ez zoaz urrutira.** - Ba ez. Etxean bertan egongo naiz. Eibarren bizi naiz, bertan daukat tailerra eta gainera, 7 urtez egon nintzen gazteen taldeak entrenatzen eta 6 urtez jokatu nuen Eibarren, beraz,...

**Zorionak, beraz.** Zorionak edo, doluminak... Badakizu, beldur piska bat ematen dit, ze Eibarrek 10 denboraldi daramatza bigarren mailan eta ekipo profesional batez ari gara hitz egiten. Gogorra izango litzateke ni hastea eta kategoria galtzea. Baina ez gaitezen ezkorrak izan.

- **Noiz egon zen lehen kontaktua eibartarrekin?** - Martxoaren hasieran. Nik apur bat pentsatu behar nuela erantzun nien ze tailerra ere badaukat eta dedikazio ia osoa eskatzen du. Azken finean zerenari adarretatik heldu behar zaiola pentsatu eta aurrera egitea erabaki nuen.

- **Jarraitu duzu azken aldian Eibar taldea?** - Gehiegi ez. Haundirekin buru belarri aritu naiz eta inguruko guztia sakon ezagutzen dut, kontrarioak, dena. Klub txiki batean entrenatzaileak egin behar izaten du ia dena, baina Eibar bezalako klubetan kolaboratzaile ugari izaten dira: bigarren entrenatzailea, hezitzaile fisikoa, medikuak,...

- **Mundu berri batekin aurkituko zara.** - Bai, hala da. Beste filosofia batekin funtzionatzen dute. Eibarko jokalariek profesionalak dira eta profesio-

nalak eta telebista tartean daudenean, diru asko izaten da jokoan. Eibar Elkartea Anonimo bat da eta gauzak serioak dira. Jokalari beteranoak daude Eibarren eta askok hurrengo denboraldian jarraituko dute. Ziur naiz euren lana ongi egiten jakingo dutela eta horrek asko lasaitzen nau.

- **Presio handia jasan beharko duzu.** - Bai, horixe da txarrena. Une oro egongo dira nik egiten eta esaten dudana lupaz aztertzen. Elgoibarren kritikak entzuten ohitu naiz baina orain beste maila batean izango da. Txarrena da Eibarren bizitzekoan ezingo dudala deskonektatu. Elgoibarren zerbait gaizki badoa, Eibarrera joaten naiz eta akabo burukominak. Baina hemendik aurrera kalean, etxean, toki guztietan gai berberari buruz hitz egingo dit jendeak.

- **Haundikoek nola hartu dute notizia?** - Misterrari gauzak ondo aterra zaizkiolako poztu egin dira baina pena ere badute. Batez ere, zuzendaritzaren erreibua kolokan dagoen une honetan. Desorientatu xatnar daude.

- **4 urte Elgoibarren.** - Askotxo. Entrenatzaileak 2 edo 3 urtez egoten dira gehienez. Ez da ona hainbeste urte ekipo berean pasatzea ze azkenean, jokalarientzako aita bezala zara. Haserretzen zarenean badakite 'oso' haserre zauden edo ez 'hain' haserre. Urte askotako konbibentzia da.

San Frantzisko, 27  
Tel. 943 74 26 21

### 98/99 Ikasturtea

### Heziketa Zikloak

**ERREMINTA  
MAKINA  
INSTITUTUA**

**Erdi Mailako Zikloa**

- Mekanizazioa

**Goi mailako Zikloak**

- Mekaniko Proiektuen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Ekiparnendu Industrialaren Mantenimendua

**Erreminta Makina Institutua**  
San Roke Auzoa, 1 Elgoibar  
Tfnoa: 943.744132 Faxa: 943.744153 e.mail: imblfmh.es

• **Markel Bergara eta Iban Murua,**  
**itt Euskadiko futbol selekzioan**

Bi elgoibartar, Markel Bergara eta Iban Murua, kadiko alebin mailako futbol selekzioarako hautatu dituzte. Maiatzaren 1 ean, 2an eta 3an Espainiako alebinen txapelketako partiduak jokatuko dituzte Burgosen Estatuko gainerako autonomien kontra. Gauzak nola diren, bai Markel bai Iban, biak pilotan aritzen ziren duela gutxira —II arte. Baina pilota utzi eta futbolari ekin bezain pronto, Markel Errealean eta Iban Athletic taldean hasi ziren, biak alebinetan. Elgoibarko Chtb Deportivoko arduradunek Euskadiko selekzioan parte hartzeko aukera zegoela adi—1 tzera eman zieten jokalariei gazte hauei. Horrela, hainbat O proba pasatu ondoren, Euskal Herriko selekzioarako hautatu dituzte beste 10 mutikorekin batera.

CC

- **Mintueta eta throldegia zahalik egongo**
- **dira hibar, rnalatzak 1**

Patronatutik aditzera eman digunez, maiatzaren I ean Kiroldetiko eta Mintxetako instalazioak irekita egongo dira, muskulazio gela izan ezik. Printzipioz ez zabaltzeko asmoa bazuten ere, azkenean kontrakoa erabaki dute. Igerilekua eta kantxa goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00ak arte egongo dira irekita eta Mintxeta, berriz, egun osoan.

## Estibariz Londres-ke maratoian

**Izaskun Estibariz elgoibartarrak** Londresko maratoian parte hartu zuen joan den igandean, apirilak 26. Lasterketa honetan 40.000 korrikalaririk hartu dute parte. Izaskun New York-eko maratoian izan zen duela bi urte. "New York-eko maratoian giro hobea zegoela iruditu zaitzaidan. Horrekin ez dut esan nahi Londresen girorik ez zegoenik, noski bazegoela. Txarangak kale bazterretan, korrikalariak moztortuta,... ". Izaskunen esanetan, unerik txarrenak 25. kilometrotik 35era bitartekoak izan ziren. "Industrialde batetik zehar pasatu ginen eta jenderik ere ez ze-



goen. Gero, berriz animatu eta azkenean amaitzealortu nuen". Izaskunek 4h07'02"ko denbora egin zuen, azken kilometroak euri eta txingotpean. Beste elgoibartar bat, Juan Fermindez, Palenciako Aguilar de Campo herriko maratoian aritu zen joan den asteburuan. Maratoi honetan partehartzaile kopurua askoz txikiagoa izan zen, 50 lagun baino ez. Baldintza benetan gogorretan egin behar izan zuten Juanek eta gainontzeko lasterkariek ibilbide osoa, tenperatura oso baxua baitzen eta euria nonahi. Hala ere, Juanek oso marka ona egitea lortu zuen.



**Hasierako lanbide heziketa bukatu baduzu, edo beste ikasketak batzuk egin badituzu, eta injinerutza ikastea zurekin bat datorrela uste baduzu**

**— — Aukera hori eskaintzen dizugu!**

**Orain, Euskal Herrian ere ikasi eta lan egin, biak batera egin ditzakezu**

3 2. Lanbide Heziketa edo 3. Modulu ikasketak egin ondoren, goi mailako ikasketak

o Beste karreraren bat ikasi duentzat injinerutza ikasketak

3 urte txandakako heziketa batean, enpresa eta IMHaren artean

Lan kontratua lehen egunetik

[InffonrinaRdeaz

**Erreminta Makina Institutua**

San Roke Auzoa, 1 gEr 943.744132 1  
 Elgoibar Faxa: 943.744153 o  
 e.mail: ingenieria@fmh.es

fff 4.1 mcae. ————— .eu":23 en amoooooala



**cesi** aqultaine  
poitou-charentes



# 201 korrikalari izan ziren Elgoibarko Duatloiazen 7, edizioan

## 1 elgoibartarrek hartu zuten parte lasterketan



*Ezkerrean, lasterketako irabazleak, alkatea eta Federazioko ordezkariak. Eskuman, Martin Dominguez, helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra, eta Ismene Salegi debarra, Urgazi Taldearen izenean parte hartu zuen emakume bakarra.*

**11711goibarko Dua-**  
tloiazen VII. edi-  
--.../fioa jokatu zen  
pasa den zapatuan 201  
korrikalariren partaide-  
tzarekin. Eguraldi bene-  
tan aproposa egin zuen  
eta horri esker, ikuslego  
mordoska inguratu zen  
Plaza aldera Euskal Her-  
rritik, Estatutik eta atze-  
rritik etorritako lasterka-  
rien jarduna ikustera.

Partaide guztien artetik 3  
deskalifikatu egin zituz-  
ten eta 198k amaitu zuten  
hiru partzialez osatuta  
zegoen lasterketa: 5,5  
km. korrika, 33 bizikle-  
tan eta 3,5 km. saltaka.  
Duatloiko irabazlea Ja-  
vier Garcia izan zen eta  
Lehendakari Txapelke-  
ta'ko txapelduna, berriz,  
Iñaki Bodegas donostia-  
rra. Cubako korrikalari-  
ek

sari berezia jaso zuten  
Urgazi Triatloi Taldeko  
antolatzaileen eskutik.  
Elgoibartarrei dagokie-  
nean, batzuk Urgazi Tria-  
tloi Taldearen izenean  
parte hartu zuten eta bes-  
te batzuk, berriz, euren  
kontu. Helmugara iritsi  
zen lehen elgoibartarra  
Martin Dominguez izan  
zen, sailkapen nagusian  
22. postuan iritsi zena.

### Sailkapen nagusia

#### Gizonak

1- Javier Garefa .....	1 h21'58"
2- Iñaki Bodegas .....	1h25'32"
3- Mario Salazar .....	1h25'56"

#### Emakumeak

1- Inmaculada Ruiz .....	1h38'45"
2- Aintzane Argaitz .....	1h39'33"
3- Ainara Iñarritu .....	1 h46'04"

### Lehendakari Txapelketa

Iñaki Bodegas

### Elgoibartarren eta Urgazikoen sailkapena

1- Martin Dominguez .....	1 h30' 08"
2- Ion Aizpurua .....	1h3 1'58"
3- Francisco Mendoza .....	1h36"33"
4- Jorge Gonztilez .....	1h38'52"
5- Jokin Agirrezabala .....	1h39'02"
6- Moises Andonegi .....	1 h40' 23"
7- Imanol Esnaola .....	1 h48' 54"
8- Ismene Salegi .....	1h53' 48"
9- Iñigo Ansola .....	1h55'36"
10- Borja Uriarte .....	1h55'49"
11- Jesus M. Lersundi .....	1h57'34"

### Idarraga Kafeak I, Saria

Haundiko jokalarierregularrena 97/98

Jokalaria ..	Puntuak
1- Gorka Guarrotxena .....	53
2- Miguel Diaz .....	43
3- Karlos Madina .....	32
4- Eneko Barrenetxea .....	32
5- Koldo Agirregomezkorta .....	32
6- Jabier Gurrutxaga .....	30
7- Ander I ru retagoiena .....	26
8- Iker Atxabal .....	25
9- Gaizka Lazarobaster .....	21
10- Unai Aranburu .....	19
11- Joseba Igartua .....	17
12- Mikel Elko ro-I ribe .....	12
13- Jon Argoitia .....	11
14- Xabier Alonso .....	11
15- Aiert Zinkunegi .....	11
16- Aitor Trebitio .....	9
17- Igor Prieto .....	8
18- Mixel Badiola .....	6

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

##### Oslirala, 1

10:15 Elgoibar - Aloña Mendi (Kad.)

12:00 Elgoibar - Lemona (E. L. jub.)

17:00 Haundi - Lemona

##### Larunbata, 2

17:00 Elgoibar - Urki (E. L. jub.)

##### Igandea, 3

12:15 Elgoibar - Añorga (In.)

16:30 Elgoibar - S. Herrera (Jub.)

#### Pilota, Ikastolan

##### Osteguna, 30

#### HERRI ARTEKO TXAPELKETA

22:00 Elgoibar - Zizurkil

(Kadeteak, lubenilak eta seniorrak)

### • Hasi da Herri Arteko Pilota Txapelketa

Joandako ostirategian Zi-  
zurkilen jokatu zituzten el-  
goibartarrek Herri Arteko  
Eskuz Binakako Pilota Txa-  
pelketako lehen partiduak.  
Kadete, jubenil eta senior  
mailetan izan ziren nor-  
gehiagokak. Kadeteetan el-  
goibartarrek 3 eta 22 galdu  
zuten zizurkildarren aurrean.  
Jubeniletan ere elgoibarta-  
rrek ezin izan zuten irabazi;  
8 eta 22 galdu zuten. Senio-  
rretan, berriz, 22 eta 19 ira-  
bazi zuten. Bihar, apirilak  
30, bueltako partiduak joka-  
tuko dira Ikastolako fron-  
toian gaueko 22:00etan.

## Pedro Migel Urruzunoren omenezko Literatur Astea antolatu du Elgoibarko Izarrak

Hari beretik, herriko zenbait gaztek Urruzuno Literatur Taldea osatu dute

*Pedro Migel Urruzuno idazle elgoibartarraren heriotzaren 75. urteurrena dela-eta, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Literatur Astea antolatu du maiatzaren 5etik 15era bitartean. Egun hauetan zehar hainbat ekitaldi izango dira: bi mahainguru, Jasone Osororen 'Tentazioaki ipuin liburua-  
ren aurkezpena eta Lorelei musika taldearen kontzertua.*

**E**lgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Pedro Migel Urruzuno idazlearen figura berreskuratu nahi du "gure artean elgoibartar honen izena eta izana ezezaguna baita". Pedro Migel Urruzuno 1844an jaio eta 1923ko apirilaren 14an hil zen. Batean eta hestetan ibili ondoren, Mendaroko Gargartzako erretorea izan zen 1879 eta 1890 urteen bitartean.

Antolatu diren mahainguruak bi dini: bat, 'Literatura eta abertzaletasuna'ri buruzkoa eta bestea, 'Zergatik dago hain emakume gutxi literaturan?' giaren ingurukoa. Elgoibarko idazleek eta kanpotik etorritakoek ere hartuko dute parte bi saioetan. Kultur Etxean izango dira biak.

### Literatur Talde gaztea

Joan den astelehen arratsaldean Literatur Astearen berri emateaz bat, Urruzuno Literatur Taldearen aurkezpena egin zen Kultur Etxean. Argazkian ager-tzen direnek eta aurkezpenean egotarik izan ez zuten beste bik osatzen

dute lantalde hau: Mikel Artola, Jasone Osoro, Jon Garate, Unai Villena, Iñigo Otaño eta Luzia Zubiaurre. Literatur gaiak iantzeko orduan hutsune bat zegoela-eta erabaki zuen Elgoibarko Izanek taldea sortzea. Besteak beste, bakoitzak egindako lanak komentatu, liburuei buruz hitz egin, ikastaroak, hitzaldiak eta urtean behin literatura astea antolatzeaz arduratuko dira taldekideak. Hauen es-



*Erretratuan Urruzuno Literatur Taldearen aurkezpeneko une bat. Taldea irekia da eta edozeinek har dezake parte.*

ku egongo da, baita ere, Elgoibarko Izarra Literatur Lehiaketaren koordinazioa eta urtean behin literatura aldizkari bat kaleratzeko ardura. Printzipioz sei lagun elkartu diren arren, talde irekia da eta literatura zaletasuna duen edonork interesa badu, 74 41 12 telefonora deitu edo maiatzaren 30ean, larunbata, goizeko 11:30ean BARRENen izango den bilera joan hesterik ez du.

## Julio Bueno zena omenduko du igandean Musika Bandak

Joan den astean hil zen elgoibartarrak 40 urtean jo zuen Bandan

**1** Nomekan, maiatzak 3, Udal Musika Bandak kontzertu berezia emango du Julio Bueno handakidea izandakoaren omenez. Kontzertua Herriko Antzokian izango da eguerdiko 12:30ean hasita. Bost pieza joko dituzte Jose Antonio Osorok zuzenduta: 'Torre del Oro' pasodohlea, 'La Italiana en Argel' Rossiniren obertura, 'La Leyenda de I besos' intermediaioa. 'Coppelia' opera fantasia eta 'The best of Mancini'.

### "Buenos Dias Don Julio"

Julio Bueno Vallano Tolosan jaio zen 1915ean. Bertan hasi zen tronpeta ikasten Gorriti eta Beobide maisuekin. Tolosako eta Donostiako bandetan tronpeta bakarlarria izan zen. Gerra ostean, Elgoibarrera la-



*Julio Bueno oso estimatua zen Bandan.*

nera etorri eta Bandan hasi zen. 40 urtez izan zen Bandako kidea. Tronpa, fliskornoa, honbardinoa eta tronboia jo izan zituena, zenbaitetan perkusioa ere hai. "Kornetin" izenez ezaguna zen eta 50 eta 60 hamarkadetan musika klaseak eman zituena neska-mutilen artean. Hauetariko batzuk gaur egun Bandan jotzen dute. Bandako zuzendariaren esanetan, "bandakideek estimu handia genion. Pertsona ona eta lagun hohea zen". Banda utzi eta gero ere, berezia izaten jarraitzen zuen Juliok handakoentzat. "Kaiejirak izaten zirenean, Errosario kaleko bere etxepetik pasatzen. geratu egiten ginen eta balkoira ateratzen zen Juliori, 'Buenos dias Don Julio', esaten genion. Hemendik aurrera ere, gauza hera egiten jarraituko dugu".



# Uiral ~pez

1 KASLEA - 19 URTE

oist  
HOGEI HOR

**1.- Merez al du bizitza? Eta Mendaron bizitza?** Bai, gauza politxa dalako. Mendaron ondo bizi naiz, herri txikixa da, trankila eta ondo bizi gera.

**2.- Eutanasia praktikatu al zenuke familiako batengan?** Oso gaizki badao eta ohe batian geldu egoteko, hobe amaitzia. Ezingo nioke ezetz esan.

**3.- Hi1 eta gero?** - Ezer ez. Bueno, zeozer egongo da baina ez dakit zer izango dan.

**4.- Lehenengo ni eta gero besteak.** - Beti pentsatzen dozu zugar bestien aurretik, ezin da ebitau. Baina lagunak ere hor daoz.

**5.- Nori kontatzen dizkiozu arazokak?** - Laguneri baina dana ez. Nere intimidadia gordetzen dot.

**6.- Zein da zure bizitzako anbigioa? Eta bizioa?** Ikasketak bukau eta lanian hastia. Nere biziva musikia da: punkya, hardeore,...

**7.- Sinesten al duzu politikan? Emango al zenuke botorik?** - Potitikan ez gehixegi eta politikuan gutxi. Asko defraudau die. Ondiok ez dot botorik eman eta ematekotan ondo pentsauko neuke. Baina ez dau merezi.

**8.- Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera?** Oin dala ez asko izan zan, intsumisioaren alde.

**9.- Euskalduna naiz eta harro nago?** Bai. Euskalduna naiz eta hemen oso ondo bizi naiz. Hizkuntza propioa daukagu eta gorde ein bihar da.

**10.- Zerk galerazten dizu loa?** - Ezerk ere ez. Examinetan ez dot hain ondo lo eitzen baina bestela, ezerk ere ez.

**11.- Mendaron Gaztetxea behar**

**da?** - Bai, ointxe pentsatzen ari gera zeozer eitxia. Alkatiak bere semiar eta lagunei eman diue lokala eta bestientzat ezer ere ez. Lokal bat gazte guztiak elkartzeko bihar dou.

**12.- Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?** - Ez dot uste. Etxian ondo portatzen naiz

**13.- Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?** - Errieta gutxi eitzen diatela eta gutxien, igual ieku batera juteko pega asko jartzen diela baina azkenian lagatzen die.

**14.- Laguntzen al duzu etxeko lanetan?** - Ohia eitzen dot, eta bakarrik nauanian nere platerak jasotzen ditzut.

**15.- Alkoholik gabe ondo pasa daiteke?** - Ondo pasau leike baina larunbatetan trago batzuk beti hartzen ditzuzu.

**16.- Irakurri duzun azken liburua?** - Atxagaren "Gizona bere bakardadean".

**17.- Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?** - Maitasuna sexurik gabe baina onena mai tasuna sexurik da.

**18.- Birjinitatea traba ala bertutea?** - Neskentzako igual bertutia baina neretzako ez bata ez bestia.

**19 - Homosexual batek maite zaituela esango ba-**

**lizu?** - Berakin hitz egingo nuke eta nere aukera sexuala zein dan esango nioke. Pentsatzen dot berak ulertuko lukeela,

**20.- Sinesten al duzu betirako maitasunean?** - Izan leike baina hori inok ez daki. Pertsona batekin ondo egon zaitxezke baina zeozer pasau ezkeru gauzak aldatu leikez.



**iet44outlw vr ebbp.**

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**



San Roke, 30 behe. z' 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK BERRIZTATZEAK PINTAKETA

# INTERESEKO TELEFONOAK

## OSASUNA

Anbulategia:	
Larrialdiak .....	461111
Txanda hartzeko .....	743354
Planning-a .....	742950
Alkohoko Anonimoak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitalea .....	756264
Odol Emaleak .....	743936

## GABRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia .....	740898

## UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua .....	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	741008
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

## BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	741626
Ki roldegia .....	744415
Kontsumo Bulegoa .....	743088
Liburutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Mintxeta .....	744315
Parrokia .....	740842
Postetxea .....	741547
Gaztetxea .....	741357

## ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

## IKASTETXEA

Haur Eskola .....	74 21 41
HMI (EPA) .....	74 08 80
Herri Eskola .....	74 08 79
H.....	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre .....	74 02 67
Ezenarro (Meka) .....	74 44 80
Ikastola .....	74 44 41
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

## KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	74 41 12
El Diario Vasco .....	74 40 73
El Correo Español	74 10 82
Egin .....	10 84 21
Zazpiki Irratia .....	74 34 74

A

## 3<sup>t</sup> osteguna

22:15 ZINE KLUBA  
"Txotx" euskal  
laburmetraia eta  
"Gabbeh" (Iran)  
Antolatzaileak: Ongarri  
Zine Kluba eta Elgoibarko  
Izarra

## 1<sup>a</sup> ostirala

22:30 ANTZERKIA  
Antzeztaldea: Antxieta  
Antzezlana: "Hamar  
minutu gauerdarako"  
Herriko Antzokian

23:30 ZIGOR  
GAZKEZen  
KANTALDIA  
Lanbroa tabernan

## larunbata

11:00 SANTA KRUZ  
EGUNEKO MEZA  
San Rokeko ermitan

18:30 KONTZERTUA  
"Ulcera" eta "Raid"  
Gaztetxean

19:30-22:15 ZINEA  
"El indomable Will  
Hunting"

E N

## igandea

12:30 BANDAREN  
KONTZERTUA  
Herriko Antzokian

16:30-19:30-22:15 ZINEA  
"El indomable Will  
Hunting"

## 4<sup>a</sup> astelehena

22:15 ZINEA  
"El indomable Will  
Hunting"

## 5<sup>a</sup> asteartea

19:00 MAHAINGURUA  
"Literatura eta  
abertzaletasuna"  
(Urruzuno Literatur  
Astearren barruan)  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra

D A

## 7<sup>a</sup> osteguna

19:00 MAHAINGURUA  
"Zergatik dago hain  
emakume gutxi  
literaturan?"  
(Urruzuno Literatur  
Astearren barruan)  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra

22:15 ZINE KLUBA  
"Persiguiendo a Amy"

## 8<sup>a</sup> ostirala

19:00 'TENTAZIOAK'  
LIBURUAREN  
AURKEZPENA  
Egilea: Jasone Osoro  
(Urruzuno Literatur  
Astearren barruan)  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra

20:00 ARGAZKI  
ERAKUSKETA  
Egilea: Gorka Salmeron  
Izenburua: "Pasiarak eta  
paisaiak"  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Ongarri  
Argazki Kolektiboa

22:30 'DAMIAN  
MUÑOZ' EN DANTZA  
Izenburua: "Daño"  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Haritz D. T.

# 11 NE A



Zuzendaria: Gus Van Sant.  
Antzezleak: Matt Damon,  
Ben Affleck, Robin Williams.

## El Indomable Will Hunting

Will Hunting gaitasun intelektual berezia duen gazte bihurria da. Boston-eko taberna batean ematen ditu orduak bere lagunekin. Ez da sekula unibertsitatara joan, lurra garbitzeko izan ezik. Matematikako buruketak, datu historikoak eta antzeko gauzak fotografikoki gogorarazteko gaitasuna dauka. Baina egun batean, borroka baten ostean, terapia klaseetan parte hartzen hasten da gartzelara ez joateko.

IN 111 • al



• **Literatur Asteko ekitaldiak, maiatzaren 5etik 15era bitartean**

Elgoibarko Izarrak antolatutako Urruzuno Literatur As-tearen buelta antolatutako ekitaldiak hauek dira: maiatzaren 5ean, asteartea, "Literatura eta abertzatetasuna"ri buruzko mahaingurua Hasier Etxeberria, Mikel Hernandez Abaitua, Ifiaki Perez Armendia eta Esteban Antxustegi idazleen partehartzearekin. Moderatzaile gisa Andres Alberdi irakaslea arituko da. Maiatzaren 7an, osteguna, "Zergatik dago hain emakume gutxi literaturan?" gaiaren inguruan, ezbaian arituko diren emakur- neak Arantxa Urretabizkaia, Arantxa Iturbe, Yolanda Arrieta eta Miren Agur Meabe dira. Mityam Villasanten irakasleak egingo ditu moderatzaile lanak. **Bi** mahainguruak Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 19:00etan. Maiatzaren 8an, ostirala, Jasone Osorok herritarren aurrean aurkeztuko du <Tentazioak> ipuin liburua, Honekin batera, Elkarlanean editorialeko Xabier Mendigurenek bartuko du parte. Kultur Etxean izango da aurkezpena. Azkenik, maiatzaren 15ean, ostirala, *Lorelei* taldeak kontzertua emango du Herriko Antzokian gaueko 22:00etan.

• **Santa Kruz eguneko meza**

San Roke bailarakoek Santa Kruz eguna ospatu-ko dute maiatzaren 2an. Santa Kruz eguna berez hila- ren 3an bada ere, meza aurreko egunean izango da, maiatzak 2, zapatua. Goizeko 11:00etan meza izango da auzoko ermitan eta ondoren harman-etakoa izango da de- nentzat. Antolatzaileek gonbita luzatu nahi diete lerro hauen bidez auzotar zein kaletar guztiei.

• **San Bartolome jaiak prestatzeko deialdia**

Udal Kultura Saila San Bartolome jaietako egitaraua prestatzen hasita dago, eta hori dela eta, suje- rentzia edo proposamenak aurkezteko gonbita luzatu nahi die herritar guztiei. Proposamenak **Kultur** Etxera bidera daitezke 74 21 58 zenbakira deituta edo Nafarroa Plaza 3 hel- bidera bidalita, astelehe- netik ostiralera, goizeko 11:00etatik 13:00etara bi- tartean. Proposamenak uztailaren 19ra bitartean jasoko dira.

**44 j d l a i l o g , t a 1 1 « t r l i a**

Taidea



Azpeitiko Antxieta An- tzerki Taldeak maiatzaren lean bere azken obra es- kainiko du, "Hamar mi- nutu gauerdirako" izene- koa. Elgoibartar bat, Jo- kin Martinez, antzeztal- de honetako kidea da eta obra honetan parte har- tzen du. Zer garen, non- dik gatozen, zer nahi du- gun,... eta antzeko galde- rak planteiatzen dituzte Antxietakoek antzeztan honetan.

*Antzeztana: Hamar minutu gauerdirako*  
*Eguna: maiatzak 1*  
*Ordua: 22:30*  
*Herriko Antzokian*



• **Damian Muñoz dantza taldearen emankizuna**

Haritz Euskal Dantzari Taldeak bigarren dantza ikuskizuna antolatu du apirilaren bukaeratik hona. Joan den ostiralean, apirilak 24, Marta Carrasco dantzariaren saioa izan zen; ikuskizun berezia, orijinala eta inpaktantea zenbait unetan. Oraingo- an Damian Mutiozen dan- tza ikusteko aukera izan- go da Haritz Taldeari es- ket "Daflo" izenburupeko lana aurkeztuko du dantza talde honek Herriko An- tzokian datorren ostirale- an, maiatzak 8.

• **Zine kluba**

Maiatzaren 7ko zine klu- beko pelikula Gazte Asan- bladak eta Zazpikik Ongar- rirrekin elkarlanean antola- tutakoa da. Pelikulak "Per- siguiengo a Amy" izenbu- rua dauka, komikien mun- duan dabiltzan pertsonaiei buruzkoa. Pelikula gaueko 22:15ean izango da Herri- ko Antzokian.

**T X A N D A**

**FARMAZIAK**

**Eguez      Gauz**

**1 Anduaga Anduaga**

**2 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)

**3 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)

**4 Escala Escala**

**5 Bidasolo Bidasolo**

**6 Etxeberria Etxeberria**  
(Santa Ana kalean)

**7 Anduaga Anduaga**

**8 Yudego Yudego**  
\*leguerdiko 2ak arte)

**ESCALA: Rekalde, 1**

**Soraluze, Tel: 75 16 38**

**ANDUAGA: Mendarozabal, 1**

**Garagarza. Tel: 75 61 42**

**OKINDEGIA**

**1 ostirala Doña Mercedes**

**3 igandea Eizagirre**

**ONGARRI**  
zine kluba



**Zuzendaria: Kevin Smith.**  
**Antzezleak: Ethan Suplee,**  
**Ben Affleck, Scott Mosier.**

**Persiguiendo a Amy**

Holden McNeil eta **ber agyna omiki** egileak dira eta arrakasta handia dute euren lanarekin. Egun batean komikiak egiten dituen emakume bat ezagutzen dute, Alyssa Jones. Holdenek zerbait berezia sentituko du Alyssarekiko baina honek nahiago du momentuz lagunak bakarrik izatea. Denhorak aurrera egiten duenean, Holdenen sentimenduak sendotzen doaz eta Alyssari gauza bera ger- tatzten zaio.

Partikularrak

Lana

◆ FSKAINTZA \*

- Ordenadoreen tekniko behar da. Esperientzia baloratuko da eta 26 urtez azpikoa izatea. Interesatuak hidali kurrikuluma lehenhailehen **Elgoibarko 8 posta kutxatilara.**
- Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. **ar 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14** (bulego orduetan)
- Jendea behar da rebarbatzaile lana egiteko. Interesatuak deitu **15 18 16** telefonora.
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. **tr 74 12 33** (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. **er 74 37 22** (goizeko 8:30etik 10:30era)
- Pertsona bat behar da hatran eta sukaldean lan egiteko. Ahal izanez gero esperientziarekin, **tr 74 37 60**

ESKAERM

- Neska eskaintzen da gauzez pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat Zaharren Erresidentzia batean lan egin baitut. **a 74 31 S8** (Ana. Gaueko 20:00etatik 21:(X)etara)
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. **mr 74 20 72** (Eburne)

Bestelakoak

- Urasandi kalean urrezko aliantza topatu dut 'Zaskun' izenarekin. **tr 74 35 49**
- Karpeta bat galdu nuen Herri Eskolatik musikeskolara bitartean. litigo Arrese Lariz ipinizen du barruan. Norhaitek aurkitu badu, dei dezala mesedez. **s 74 32 96**
- Ostegun Santu iluntzean, elizatik Santa Klarara bitartean perla zuri-dun eta brillante txikiak dituen berlarritakoa galdu nuen. **a 74 15 64**
- Perikito grisa aurkitu dtt. Hanka batean anila hat dauka. Galdu duenak dei dezala **74 04 97** telefonora.
- Katu siamesa galdu dut Ermua-ranhide kalean. Nahiko iluna. Norhaitek aurkitu badu, mesedez dei dezala. **tr 74 35 48** (Puri)
- Hiru txakur "ratonero" einango nituzke. Hilabete dute. **tr 75 60 42**

- Latin eta grekera klaseak hartuko nituzke. **tr 74 09 85** (Nuria)
- Enpresariales ikasketetrdco Ekonomia I eta II ikasgaien klase partikularrak hartuko nituzke. **tr 74 15 24**
- Humanistikako klaseak emateko norhait behar da. **tr 74 14 03**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. **ar 74 07 86**
- Hutnanistikako klaseak hartuko nituzke selektibitateko. **tr 74 09 85**
- Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. **ir 74 00 98**
- ◆ Kitnika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. **tr 74 44 45** (Arrate)

Garajeak

- Garaje itxia saldu edo alokatzen da Arregitorren, it **74 12 53**
- Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. **tr 74 12 04**
- Garajea alokatzen da, Pista beltzaren azpian. **z 74 14 89**
- Marradun garajea alokatzen da pista beltzean 5.000 ptan. hileko. **17 74 00 70** (gauzez)
- Garaje itxia saltzen da Arregitorren. **a 75 51 77** (Tere)
- Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. **a 74 26 94**
- Marradun garajea alokatzen da San Roke **5, 74 33 39**

Etxebizitzak

- Etxea alokatzen da Santa Polan. Hondartzatik 50 metrora. Ekain, uztail eta irailean. **tr 74 08 05**
- Pisua alokatzen da. 3. pisua igogailuarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. San Inazio 3 zenba. kian. **tr 74 07 31**
- Soralezko Loralde kalean etxea salgai. **tr 74 34 05**
- Pisua alokatzen da Madrilan. Ikasleentzako aproposa. **74 31 56**
- Pisu txikia edo buhardila bat alokatuko nuke. **tr 74 43 10** (Cristobal)
- Etxea konpartitzeko pertsona behar da Elgoibarren. **er 989 35 73 70** (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

Salerosketak

• SALDU •

- Lokal-bulegoa alokatzen dut alzariekin. **Erdigunean. tr 74 43 62**
- Game Boy bat saltzen dut. 13 jolas ditn, 13.000 pta. **74 24 83**
- Kotxe kapota, kotxea estaltzeko eta 2 manta salgai. Guztiak berriak. **st 74 44 16**
- Aukera. Karabana salgai. Oso ondo zaindua. Prezioa 350.000 pta. **tr 74 27 29**
- Aleaziozko 4 errobera saltzen ditut. Wolksvagen Polo autorako. 20.000 pta.n. **tr 74 43 10 (Kitxo)**
- Ezkongaiantzako hi soineko saltzen ditut. Kolore zuria dute eta 40 zenhakia. Prezioa hitz egitekotan. **17 15 03 95**

EROSI •

- Umea bizkarrean eramateko motxila erosiko nuke. **tr 74 42 97**
- Manikiak behar ditut eskaparatetarako. **a 58 09 18** (Bego)

Agurrak

- Zorionak Joanat Zer, liki zahartzen ari zara, e? Beno, egun ona pasa eta zorionak berriz ere Elgoiharko lagunengatik.
- Zorionak **Jorgeri** hilaren 23an 13 urte bete zituelako Pilar eta Ikastolako lagunengatik. Segi zure irribarrearekin.
- Zorionak **Alberto** Casirori hilaren 26an 12 urte bete zituelako. Pilarreko 6. mailakoengatik.
- Zorionak **Mikel de Pahlori** hilaren 17an urteak bete zituelako. Asier eta Albertoren partez.
- Zorionak **Iokin Altunari** maiatzaren 2an urteak beteko dituelako. Ikastolako DBH lekoengatik.
- Zorionak **Alazne Eseuderori** igandean, hilak 26, I-Iaur Krosa irabazi zuelako. Lara eta Itsasoren partez.
- Maiatzaren 3an urteak beteko dituen Loreari eta maiatzaren Sean urteak egingo dituen **Sabini**, zorionak familia osoarengatik.
- Zorionak Norari hilaren 4an 6 urte beteko dituelako. Zure ahizpa Nadia eta etxekoengatik.



Agurrak

- Zorionak **Ainhoa Doradori** maiatzaren lehen 10 urte beteko dituelako. lila osoaren partez.



- Zorionak **An-ton** eta **Soniari** maiatzaren lehen egungo duten astakeriarengatik. Kokoekoak zuen ezkontza egunean egongo garen, kontuz gerta daitekeenarekin.


- Zorionak **Arantxa San Martini** maiatzaren 2an urteak beteko dituelako. Familiaren eta hereziki seme-alabengatik.



- Zorionak **Elena** eta **Juleni** hilaren 27an urteak bete zituztelako. Familia osoarengatik.



- **Aritz Kruzelegiri** zorionak gurasoengatik maiatzaren 2an 14 urte beteko dituelako.



- **Ion Odriozola Martinez** zoriondu nahi du bere familiak eta anaia Asierrengatik maiatzaren lehen 8 urte beteko dituelako.



- **Mari berritxu**, zorionak eta anitz muxut AEK euskaltegiko ikaskide eta irakaslearengatik.

- Zorionak **Mikel Anakaberi** maiatzaren 5ean 6 urte beteko dituelako, Familia osoarengatik eta bategi bere lehenegus Jonengatik.







# ESOZIA

## Falthea

esozia efor6iofea, z/fr

,7e1 943 75 10 01

20590 c\_Soraluze



**Y**atinarIze,

**ela** ospaL:zunelarao leAz czproposa

sozio.O ermilaren aSoan

YailITC1Z inyurathriA parale e rrean

aloz eta ezavuth ezazu

# ZEZEN-BIDE

re-

## AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



**%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin**



San Frantzisko, 43 Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR — Zezenbide, 1-1 Tel: 943 20 34 45 – EIBAR





ALDIBI AUTOAK, S. A.



MITSUBISHI  
MOTORS



GALLOPER

ALDIKAR AUTOAK, S. L.

ALMOVIL, SL

**ALDIBIrekin, laister etorkizuna  
gertuago izango duzu.**

**Nissan, Mitsubishi eta Galloper  
marken zerbitzu berriak irekiko  
ditugu laister batean OLASO kalean  
(Iehen Autos Artetxe zena).**

**ZATOZ, EZ ZARA DAMUTUKO!**



**ALDI131 AUTOAK, S.A.**

Olaso kalea, 23 - 20870 ELGOIBAR  
Tel: 943 74 20 37 Faxe: 943 74 35 24  
(Autos Artetxe)

Zigarrola kalea, 1 - 20500 ARRASATE  
Tel: 943 71 20 02 Faxe: 943 79 65 65